

DBUS-EN ENERGIA POLITIKA

Politika honen bitartez, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIAREN zuzendaritzak agintzen du energiaren kudeaketarako sistema bat ezarriko eta zainduko duela, ISO 50001 arauak ezartzen dituen eskakizun guztiak beteta.

Zuzendaritzak bermatzen du enpresak erabiltzen eta kontsumitzen duen energia mota eta kantitatea egokiak direla, eta bere jardura eta zerbitzuen garapenerako beharrezkoak.

Zuzendaritzak agintzen du hauek etengabe hobetuko dituela:

- Energiari lotutako jarduna eta efizientzia energetikoa.
- Energiaren Kudeaketarako Sistema eta bere prozesuak, bai eta jardueren, azpiegituren eta erabili beharreko baliabideen eta insumo orokorren diseinu eta zehaztapen egokia ere.
- Politika honetarako egokiak diren produktu eta zerbitzu egokien erosketa eta erabilera, bai eta politika honekin bat datozen hornitzaileen erabilera ere.
- Informazio eta baliabideen eskuragarritasuna, behar diren tokian.

Konpainiak agintzen du lege eskakizun guztiak eta energiaren erabileraz, kontsumoaz eta efizientziaz eta energiari lotutako jardunaz dauden beste eskakizun guztiak beteko dituela.

Aurreko guztiarekin batera, hirian bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa emateko misioa ere beteko du, erreferente izaten eta garraio zerbitzu lehiakorra eskaintzen saiatuta eta gaur egun ditugun eta etorkizunean izan ditzakegun erabiltzaileek mugitzeko dituzten premiei ahalik eta gehien erantzuteko asmoarekin, kalitate handiko zerbitzua eta informazio praktikoa eskaintzeko, lehiatzeko moduko kostuekin eta gure ingurumenaren iraunkortasuna bultzatuta.

Energi politika honen aplikazioa etengabe berrikusiko da eta, gutxienez, urtean behin Zuzendaritzaren eskutik, Energiaren Kudeaketarako Sistemaren eraginkortasunerako eta bere helburuetarako beharrezkoa den heinean.